

noaua



ARGAZKIA: NOAUA



Igeldo, Orio eta Usurbil inguruan bizi den igelaren egoerak ez du hobera egin / 06



Xosé Estévez: "Gaur egungo testuinguruan, Galeuzca oso aktuala da" / 08



San Esteban kalea oinezkoentzat izango da, salbu eta bertako bizilagunentzat / 15



Errigorak 10. urtemugako kanpaina abiarazi du / 17



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

·BEILATOKI GUZTIAK ·ERRAUSKETAK ·LEKUALDAKETAK

www.funerariagonzalez.es



Antxeta
TABERNA-JATETXEA



Askotariko frijituak
Antxeta entsalada
Piper beteak
Arrain zopa
Barazkiak tenpuran

Arkume txuletak
Txahal-biribila
Txipiñoiak
Bakañoa
Saiheskia

Jogurt moussea /Pantxineta
Arroz esnea/ Flana
Txokolatzeko coulant-a
(edaria eta kafea menutik kanpo)

18€
(BEZ BARNE)

antxeta
**ASTEBURUKO
MENU BERRIA!**

egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua (astegunetan) ·asteburuko menua

·ogitartekoak, pintxoak, razioak, paellak
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12

DOKUMENTALA Bidasoa 2018-2023
azaroak 5, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi



KONTZERTUA Gari&Maldanbera
azaroak 10, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi



ANTZERKIA Kanpora sartzen
azaroak 11, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi

KONTAKIZUNA ETA TERTULIA Usurbil borobil erriean dabil
azaroak 12, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi



Sarrerak: alde zuzetik salgai usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaualko egoitzan.

NOAUA/KO KULTURALDIA 2023 **USURBIL AZAROA**



Altzonazko zubia itxi egingo dute hainbat orduz

Txokoaldeko sarbide eta irteera ere baden Altzonazko zubia itxita egongo da zenbait orduz, datorren ostegunean, urriaren 26an. Hala jakinarazi berri du Usurbilgo Udalak.

Saneamendu lanak tarteko, itxi egingo dute zubia bost orduz; ostegun goizeko 9:30ean hasi eta eguerdiko 12:30ak arte lehenik; baita gerora ere, 14:00-16:00 artean, Udaletik ohartarazi dutenez.



Saneamendu lanak tarteko, zubia bost orduz itxiko dute ostegun honetan, hilak 26.

Garbigune mugikorra, aste honetan Santuenean

Urriaren 26tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxe-hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Azaroaren 2an osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

1973. urtean jaiotako kinto bazkaria

"1973an jaio ginenok aurten 50 urte borobil beteko ditugunez, bazkari batez ospatzea erabaki dugu. Azaroaren 25ean Atxega jauregian elkartzekotan gara eta zu ere bertaratzea gustatuko litzaiguke. Izen emateko azken eguna: azaroak 15. Izaro (658 744 904) edo Joseba (661 122 568)".

1959an jaiotako bazkaria, azaroaren 18an

Udazkena izan ohi da kinto bazkarien garaia. 1959an jaiotakoek iragarri dute beren ospakizuneko eguna: azaroaren 18an batuko dira. Igorri diguten informazioan tokia ez dator zehaztuta. Topaketa honetan izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 659 139 073.

1945ekoak Artzabalen elkartuko dira azaroaren 19an

1945. urteko kinto bazkaria antolatuta duten lagunek ohar hau bidali digute: "1945. urtean jaiotako bazkaria antolatuta dugu azaroaren 19an igandea, Artzabalgo jatetxean. Izen emateko 645711033 telefonora deitu behar da. Izen emateko azken eguna azaroaren 14a izango da".

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROITZ EIZMENDI

Ikusi makusi, zer ez ikusi

Duela gutxi ezagun batek esan zidan askotan ikusten naue labarkoian arropak zintzilikatzen edo jasotzen. Harrigarria eta ezohikoa egiten zitzaioela nabaritu nuen, zeozer arraroa eta lekuz kanpoko egingo banu bezala.

Geroztik arropak zabaltzen edo jasotzen aritu naizenean inguruko balkoietara begiratu dut. Aldameneko portaleko bigarren pisuko ikusi dut ni bezala; behin baino gehiagotan egin diogu elkarririk kasu eskue-tan arropa eta pintzak ditugula. Haren aldameneko balkoian ere arropak zabalduta egoten dira lehortzen. Baina... begirada luzatu eta... ez dira askoz balkoi gehiagotan ikusten arropak lehortzen. Arraroak ote gara? Ezohikoak?

Herrian barrena egin berri dudana paseo batean horretan jarri nuen arreta: Santuenean, Etxealdian, Bizkarren, Eguzkitzaldean, Kaxkoan, Olarrondon... ikusi nituen arropa zabaltzeko sokak jarrita eta zenbait etxetan arropak zintzilikatuta; baita jendea arropa zabaltzen eta jasotzen ere. Mugimendua eta kolorea ikusi nituen. Txaramunton, Artzabalaren, Kale Nagusian, makilen parkeen eta Ugartondan ez; balkoietan eta leihoetan sokarik ez; balkoi bakanen batean esekitoki bat baino ez. Ez mugimendurik, ez kolorerik.

Harrigarria egin zait bereizketa: auzo zaharragoetako etxeetan arropak zintzilik ikus-



"Harrigarria egin zait bereizketa: auzo zaharragoetan arropak zintzilik ikusten dira lehor daitezen eta auzo berriagoetan ez".

ten dira lehor daitezen; auzo berriagoetan ez. Batzuk esan didate estetikatik erabaki zela haien etxeetan arropa zintzilikatzeko sokarik ez jartzea eta arropak ez zabaltzea. Denak ados zeuden nonbait arropak esekita ikustea ez dela estetiko erabakitzerakoan. Eta beraz, komunitateak erabakita, etxe horietan ezin da arropa kanpoan zintzilik jarri.

Beste detaile bat ere aipatu didate: normalean auzo berriagoetako etxeetan arropa lehorgailua izaten dutela eta beraz, arropak han lehortzen baldin badituzte, ez dute ez sokarik ez esekitokirik behar;

"ETXE BATZUETAN ESTETIKAGATIK ERABAKI OMEN ZUTEN ARROPA ZINTZILIKATZEKO SOKARIK EZ JARTZEA"

garbigailutik lehorgailura eta lehorgailutik armairura. Dena etxe barruan.

Larbain baserrian, berriz, kanpoaldean soka pare bat daukate jarrita eta han lehortzen dira arropak eguzkiaren berotan eta haizearen mugimenduarekin. Baserri gehiagotan ere ikusia naiz, eta San Inazio etxe batzuetan ere bai.

AEBn *sundrying* modan jartzen ari omen da, arropak eguzkitan lehortzea, alegia; jasangarria, ekologikoa, energia aurrezteko modukoa... delako. Eta gu, hemen, arau estetikoak jartzen, mugimendua eta kolorea ezkututzen eta haizearen usainaz lehortutako mairidireen fereka galtzen. AEBtik moda iristean berreskuratuko ote ditugu lehengo ohiturak?

Ahal banu, Zumetari galdetuko nioke zer iritzi duen estetika irakurketa honetaz, frontoi atzeko mural koloretuaren egileari.

Mundualdiaren atarian

Badator sorteri guztietako usurbildarrak bilduko dituen Mundualdia. Azaroaren 4an ospatuko da, besteak beste, ohikoa den jatorri ezberdinetako herrikideek sukaldaturiko jakien dastaketarekin. Egunotan aurkeztekoak dira ekimeneen egitaraua. Mundualdiaren atarian, aldiz, ongi etorri ekitaldia antolatu dute udaletxean, urtariletik irailera Usurbila bizitzera etorritakoentzat. Saio honetara gonbidatzeko gutuna bidali die Udalak aipaturiko herrikide hauei guztiei. "Hemendik aurrera, saiook urtean bi aldiz egitea da asmoa".

Mundualdira begira Azaroak 2, osteguna

18:00 Alkatearen ongi etorri saioa urte hasieratik irailera bitarte herrian erroldatutakoiei Udaletxeko udalbatza aretoan.

Azaroak 4, larunbata Mundualdia.

Ordu aldaketa

Neguko ordutegira egokitu beharko ditugu erlojuak aste-buru honetan. Urriaren 28tik 29rako goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira. Beraz, ordubete "gehiago" izango du larunbat gauak. Biharamunetik aurrera, goizago ilunduko du.



Goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
PAIRUEN JATEXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

IKA-MIKA

Angularen arrantza profesionalizatzeako dekretuari alegazioak**NATURKON ETA ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA**

NATURKON Gipuzkoako talde naturazaleen eta ekologisten koordinadorak eta Anerreka Ingurumen Elkartek salatu nahi du angularen arrantza profesionala arautzeko dekretu-zirriborroari alegazioak itsu-itsuan aurkeztu behar izan dizkiogula, horren oinarrian ustez dauden txosten zientifiko eta juridikoak ikusterik izan ez dugulako.

ICES Itsasoa Ikertzeko Nazioarteko Kontseiluaren txosten zientifikoaren arabera, aingira "segurtasun-muga biologikoetatik kanpo dago, arrisku larrian", eta, gauzak horrela, faktore antropikoek -arrantzak barne- eragindako hilkortasunak "0 edo 0tik ahal den hurbilen" egon beharko luke. Hain justu, ICESen txostenetan oinarrituta, angularen arrantza murrizteko hainbat neurri hartu zituen iaz Europar Batasunak. Neurri horietako bat

angularen aisialdiko arrantza debekatzea izan zen, eta aisialdiko arrantza da Gipuzkoan eta Bizkaian orain arte baimenduta egon den angularen arrantza-modalitate bakarra. Horregatik, profesionalizazio-dekretuari alegazioak egiteko, ezinbestekoa zen Aztiren txostenak ezagutzea. Ezinbesteko zen -eta da- ezagutzea Aztik nola egiten dien aurre ICESen txostenei, nola justifikatzen duen gure errioretan oraindik angula arrantzatzen jarraitzeko aukera badagoela. Edo zehatz-mehatz zenbateko kuotaz ari garen eta nola kalkulatu duten hemendik aurrera profesional izango den sektore bati eusteko. Edo dekretuak zergatik aurreikusten dituen 150 arrantza-baimen, eta ez 30 edo 300.

Horrelako zerbait gertatzen da txosten juridikoekin, batez ere dekretuak Europar Batasunaren erabakiari iskin egitea beste helbururik ez duela kontuan izanda. Dekretuak suposatzen du sektore profesional bat artifizialki sortzea, edo, aitzitik,

inplizituki aitortzea urtetan jarduera profesional hori existitu, existitu egin dela, baina aisialdi-jarduera gisa kamuflatuta; beraz, ingurumen-kontrol egokirik gabe eta gainerako jarduera ekonomikoek dituzten baldintzetatik at.

Argi eta garbi geratu dena zera da, dekretua Euskadiko Anguleroen Elkartearen neurriaren egindako jantzia dela, Gobernuak elkarte horrekin eta elkarte horrekin bakarrik negoziatu baitu. Halaber, argi eta garbi geratu da Bittor Oroz Arrantza kontseilariordeak gai honetan publikoki agindu zuen "gardentasun erabatekoa" ezerezean geratu dela. Seguru asko dekretuaren atzean dauden txosten zientifiko eta juridikoen berri izaten bukatuko dugu, baina ordurako alegazio-epea bukatuta egongo da.

Nolanahi ere, dekretua, oroz gain, biodibertsitatearen aurkako eraso berri bat da. Gobernuak berriro sakrifikatu du biodibertsitatea, oraingoan klientelismoaren aldrean.

"Andatzako defentsa-lerroa" bisita, bertan behera

Usurbil 1936 elkarrekarriaren 21erako antolatua zuen "Andatzako defentsa-lerroa" eza-gutzeko bisita antzestu eta gidatua bertan behera uztea erabaki zuten bezperan. "Pena handiz jakinarazten dizuegu larunbaterako antolatua genuen Andatza Defentsa-lerroko ibilaldia bertan behera uztea erabaki dugula. Eguraldi txarra medio, aurrez beharrezko atondura eta prestakuntzak egitea ezinezkoa izan zaigu. Gainera, nahiz eta larunbaterako eguraldi hobea aurreikusia izan, mendian horrenbeste jenderen (batez ere oinez egin behar ziren zati batzuetan) segurtasun baldintzak bermatzeko arazoak izango genituen", ohartarazi dute Usurbilen memoria historikoa berreskuratzeko lanean ari den elkartetik.

Sare sozialen bidez eskerrak helarazi nahi izan dituzte. "Ahal-egin honetan gogo biziz lagun izan ditugun guztiak bereziki eskertu nahi ditugu. Biziki eskertu nahi ditugu, bereziki udal zerbitzuak". Etorikizunean ekimen hau antolatzekotan dira. "Aurrerago abentura hau egia bilakatu dadin berriro saiatzeko prest izango ditugula espero dugu".

Helburu hirukoitza zuen ekimenak; 1936ko abuztuan eta irailean herri honetan jazotakoaz informatzea, gertakari haien testuingurua azaldu eta garai hartako Andatzako lubakiak erakustea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

"Usurbil bizi, lau misio, herri bat" herri-aurkezpena

"Udalak lau herri-erronka identifikatu eta misio bihurtu ditu: misioen baitako udal-gobernantza eraikitzea goazi!", adierazi dute udal gobernu taldeak. Udala herritarrengandik gertu,

trantsizio ekosoziala, zaintza eta 650 Usurbil Bizi izango dira aipatu lau herri-erronkak. Herritarrek, lurraldea eta antolaketak izango dira bestalde, abiatu berri den legealdian,

udaletxe barruan abiarazi duten funtzionamendu berriko hiru ardatz nagusiak. Horri guztiari buruzko herri-aurkezpena iragarri dute ostiralerako, urriaren 27rako 18:00etan Mikel Laboa plazan. Eurria bada, Zumarte musika eskolako ganbaran egingo dute aurkezpena.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoen eskubideen aldeko hileroko mobilizazioa izango da ostiral honetan, urriaren 27an, Sarek deituta. Ohi bezala, arratsaldeko 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.



"Duela gutxiko EAEko espezie mehatxatuen zerrendan espezie bakarra geneukan, Hegoaldeko zuhaitz igela".

"Igeldo, Orio eta Usurbil inguruan bizi den igelaren egoerak ez du hobera egin"

JON GARIN ARANZADIKO ESPELEOLOGOA

Natur Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunak udaberriari argitaratu zuen arriskuan dauden espezieen zerrenda, eta bertan jarraitzen du inguru hauetan bizi den zuhaitz igelak ere.

Natur kontserbaziorako nazioarteko batasunak argitaratu du orain hilabete anfibioak arriskuan daudela. Zuek zein irakurketa egiten duzue?

Duela hilabete batzuk prentsa ohar bat atera genuen Natur Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunak ateratako ikerketa lan baten harira. Lan hori munduan egin den ikerketa zabalenetakoa izan daiteke edo espezie gehien kontuan hartzen dituenena, behintzat. Bertan, landare eta animalia talde taxonomiko ezberdinetako espezieak hartuta, aztertu zuten zein talde zeuden egoera markurrenean. Ornodunei dagokienez, argi geratu zen anfibioak direla talde mehatxatue-

na. Espezieen %40 mehatxatuta daudela uste dute. Guk ikerketa lan hori aprobetxatu genuen Euskal Herrian anfibioek bizi duten egoera aztertzeke. Duela gutxiko EAEko espezie mehatxatuen zerrendan espezie bakarra geneukan, Hegoaldeko zuhaitz igela edo igel meridionala deritzona. Azken birpasa egin ostean, zerrenda horretara beste bi espezie ere gehitu dira eta guk ondorioztatu genuen anfibioen egoerak ez duela onera egin eta horrek zer pentsatu eman beharko ligukeela. Zentzu horretan aipatu, mehatxupean dauden espezieen zerrenda atera zutenean hor sartu eta bertan jarraitzen duela orain-

dik ere Hegoaldeko Zuhaitz Igelak kategoria gorenean. Azken hamarkadetakozonalde berdinean jarraitzen du, baina ez du lortu egoera hobetzea.

"ORION, USURBIL EN DONOSTIA BAINO EZIN DAITEKE TOPA. IPAR EUSKAL HERRIAN ERE BIZI DA IGEL HAU, BAINA INON GEHIAGO EZ"

Zein berezitasun ditu igel honek Dbus konpainiako ikurra eta Gipuzkoa Basketeko maskota izateko?

Espezie mehatxatuen lehen zerrenda kaleratu zenean, kategoria gorenean zegoen orduan ere eta Aranzaditik kanpaina bat bultzatu zen espeziearen egoeraren berri emateko. Has-tapenetan, 90eko hamarkadako lehen urte haietan kinka larrian egon zen igel hau Gurelesa enpresaren alboan da goen urtegiari ugaltzen zelako. Proiektu bat zegoen hori deusezteko eta gizartean mugimendu bat sortu zen espeziea babestu eta kudeaketa ekintzak sortzeko animalia honen alde. Horrez gain, beharrezkotzat hartu zen jendea jabetzea inguru horretan daukagun altxorraz. Hego Euskal Herria kontuan hartuko bagenu, Orion, Usurbilen eta Donostian baino ezin daiteke topa, eta horrek oso berezi egiten du. Ipar Euskal Herrian ere bizi da igel hau, baina inon gehiago ez. Honen-gatik guztiatetik eman zaio horrenbesteko oihartzuna. Dbus konpainiak ikurtzat hartu zuen, Gipuzkoa Basketek maskotatzat eta Igaran dauden tabernetan eta enpresetan izen edo lotatzat ere bai.

Zein da beren habitat naturala?

Azken ikerketa genetikoaren arabera, igel honek migrazio bide bat izan omen zuen Afrikatik inguru hauetara. Iberiar penintsulan leku ezberdinetatik sartu zen duela 4000-5000 urte inguru Gibraltargo lurmuturretik aurrera eginda. Kolonizazio prozesu bat hasi zuen orduan, eta Usurbilen eta inguru hauetan daukagun populazioa Kataluniako populazioaren berdina da. Kataluniatik barna sartu eta Pirinioetako iparraldetik iritsi zen lurralde hauetara. Ipar Euskal Herrian bizi den lurraldetik Donostia ingururako tarte horretan aurkitzen saiatu gara, Txingudi inguruan bizitzea ez zelako harrizkekoa izango, baina ez dugu topatu. Genetikoki bere-

zia da eta inguruko espezieekin alderatuta ezberdina. Egungo bizilekuari dagokionez, uste da (erabat ziurra ez bada ere) erreka ingurua migrazio bidez erabiltzen duela, baina ugaltzeko ur geldoak behar ditu, hau da, putzuak. Putzu iraunkorrak nahiago ditu, tamaina handiko putzuak behar dute, ez diete balio bide bazterrean osatzen diren ur putzu txikiak. Urte osoan urez beteta mantentzen diren putzuak behar ditu, Igeldoko edo Mendizorrotxeko mendizerran dauden putzuak eta urtegi txikiak. Putzuek nahiko agerian egon behar dute, eguzkitsuak izan, eta horrek asko zailtzen du kudeaketa. Abereen edo gizakien zuzeneko eskuhartzea behar du horrek, ur ertz hori irekita mantentzeko.

Basoan aurkituko bagenu, nola bereizi genezake gainontzeko igel espezieengandik?

Badugu Hego Euskal Herrian oso antzekoa den beste espezie bat ere, baina hura ez genuke Gipuzkoako inguru hauetan aurkituko. Zuhaitz Igel Iberiarra da hori, baina juxtu inguru hauetan ez da bizi. Igel hauen berezitasuna da igokariak direla, hau da, zuhaitzetara edo altuera batzuetara igotzeko gai direla. Zuhaitzetan gora igo daitezke eta arrak emea kantuen bidez erakartzen dute. Beraz, bereizgarri nagusiak bi dira: kantu ozenak (ia kilometro batera entzun daitezke euren kantuak) eta zuhaitzetara igotzeko gaitasuna. Gainontzeko beste espezie arruntek ez dute horrelako berezitasunik. Orokorrean, oso espezie liraina da eta oso txikia. Normalean, 4-5 zentimetrokoak dira.



"Putzuek agerian egon behar dute, eta horrek asko zailtzen du kudeaketa".



Artikulaundiko putzua, 2021ean eginiko argazkian.

Espezie honen etsai nagusiak zein dira?

Nabarmendu behar da lehenengo animalia honek bizitzeko behar dituen hezeguneetako asko desagertu egin direla. Gipuzkoako orografia gorabeheratsuak egiten du eraikuntzarako erabiltzen diren lurak lauak izatea eta zonalde horietan sortzen ziren putzuetako asko lehortu egin dira eta galdu. Espezieak erabilgarri zituen habitatak

galdu ditu eta egun erabiltzen dituen putzuetako asko gizakiak sortutakoak dira ingurumen planetatik etorrira. Horrez gain, azpimarratu beharra dago kanpoko espezieek egiten dieten kalte ikaragarria. Igelak erabiltzen dituen putzu askotan ikusi ditugu arrainak eta dordokak. Horiek izugarriko triskantza egiten dute igelek urteetan uzten dituzten arrautzak eta zapaburuak jaten dituztelako. Beraz, on-

"ZUHAITZETARA EDO ALTUERA BATZUETARA IGOTZEKO GAI DA"

"ARRAK EMEA KANTUEN BIDEZ ERAKARTZEN DU"

dorengo gutxiago dituzte eta epe luzera populazioaren egoerak okerrera egiten du. Egoera honen erantzuleak gu gara, etxean gehiago nahi ez ditugun arrain eta dordokak putzu hauetan askatzeagatik.

Gizarteak zer egin lezake espezie honi laguntzeko?

Lehenik eta behin, etxean dauzkagun animaliak betirako hartu behar ditugula kontuan izan eta ez edonon utzi nazkatzen garenean beraietaz. Kanpo espezieen kudeaketa egokia egin behar da eta planak badaude horretarako, baina norbait ez bada gai animalia hori zaintzeko edo ezin badu eduki, Foru Aldundira deitu eta basozainek hartuko dute arrain, dordoka edo dena delako hori eta babesleku batzuetara eramango dituzte. Leku batzuetan Floridako dordoka asko askatu dituzte eta ugaltzen hasi dira Txingudi inguruan eta arazoa kronifikatu egin da nolabait. Legeak gogortu egin dira eta horrek nolabait lagundu dio zuhaitz igel honi. Dendetan espezie batzuk ezin dituzte saldu, baina beste batzuk bai eta arazo horrek oraindik ere bere horretan dihardu. Hala ere, anfibioen gainbeheraren kausa nagusietako bat munduan pandemia egoera batean dau dela ere bada. Onddo eta birus batzuk zabaltzen ari dira eta eragin handia izaten ari da hori anfibioengan. Beraz, gizakiok putzuetara ez jotzea izan daiteke arazo honi aurre egiteko modu bat. Uretan ez sartzea komeni da, guk geuk ere gaixotasun horiek zabal ditzakegulako putzu batetik bestera onddo eta birus hauek nahigabe gainean eramanda.



·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK


www.artzabaljateetxea.com 943 36 91 39



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



"Galeusca eraginkor bat suspertzeko egoera ezinhobe da, eta ez da baztergarria", Xosé Estévezek adierazi digunez.

"Gaur egungo testuinguruan, Galeuzca oso aktuala da"

XOSÉ ESTÉVEZ HISTORIALARIA ETA IDAZLEA

Galeuzca, La periferia contra el páramo (Nabarralde) liburua plazaratu du aurten. Azaroaren 6an, liburuari eta Galeuzcari buruzko azalpenak eskainiko ditu Sutegin. Udal liburutegiak eta Nafartarrak taldeak elkarlanean antolatuta duten solasaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

Nabarralderen web orrian irakurri dugunez, 1923ko 'Aliantza Hirukoitza' delakoaren ehungarren urtemuga ospatuko da aurten. Galeuzca mugimenduaren sorburua hau izan al zen?

Egia esan, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko abertzaleen arteko harremanak orduan hasi ziren estutzen. Ordura arte, harremanak bilateralak izan ziren; galiziar eta katalanen artean edota euskaldunen eta katalanen artean. Galeuzca izena ordea, 10 urte beranduago agertuko zen, 1933. urtean. Galeuzcamugimendua, hasiera batean politikoa zena, periferiako hiru nazioen behar batetik abiatu zen. Espainiako

estatu zentralista eta hertsia-
ren aurrean, hiruko bloke
abertzale bateratu bat eta so-
lidario bat artikulatzeko pre-
miaz.

Bilaketa iraunkor baten gisa definitu daiteke, modu ziklikoan sinatutako itunen bitartez indartua izan zena. Euskal-galiziar-katalan akordio bat izan zen, gero eta autogobernu maila handiagoa lortzeko helburuarekin jaiotzen zena. Soberaniaren premia azpimarratzen zen; batzuentzat autonomia integrala eskatzen zen, besteentzat federalismoa edo kofederelismoa, eta beste batzuentzat independentzia.

Galeuzca 1933an sortu zen. Lehen erreferentzia Euzkadi egunkarian agertu zen. Esan daiteke euskal ekimenez osatu zela Galeuzca?

"EUSKAL-GALIZIAR-KATALAN AKORDIO BAT IZAN ZEN, GERO ETA AUTOGOBERNU MAILA HANDIAGOA LORTZEKO HELBURUAREKIN JAIOTZEN DA"

Galeuzca osatzeko lehen hartuemanak Bartzelonan eman ziren, 1933ko maiatzean. ANV, PG eta ERC alderdiek urte horretako apirilaren 2an Bilbon eskainitako mitinaren ondoren, eta apirilaren 16an Donostian egin zen II. Aberri Eguna arratsatuaren ondoren.

Bartzelonako lehen hartueman horietan, Telesforo Monzonek eta Teodoro Hernandorenak hartu zuten parte euskaldunen izenean, GBBko presidentea eta idazkaria hurrenez hurren, eta katalanen ordezkari gisa Josep Maria Batista i Roca Palestra erakundeko idazkaria aritu zen. Hauek dira Galeuzca izena asmatu zutenak, eta 90 urteko ibilbidea abiatu zutenak.

Ez da Galeuzcari buruz idazten duzun lehen aldia. Oraintsu 'Galeuzca, La periferia contra el páramo' argitaratu duzu Nabarralde argitaletxearekin. Liburu honen bitartez zertan sakondu nahi izan duzu?

Lehenik eta behin, Galeuzcaren baitan hartu diren akordio eta hitzarmen ezberdinen inguruko narrazio deskriptibo bat egiten saiatu naiz. Ahanzturaren putzuan galduta gera ez daitezten.

Bigarrenik, eta latinerako esatera zaharra gogora ekarriz, historia bizitzaren irakaslea denez eta iraganeko ezjakintasunak orainaldiko akatsak ongarrizten dituenek, gaur egungo testuinguruan Galeuzca oso aktuala dela. Bere analisiak konponbide ezberdinak iradoki ditzakeelako: estatu espainiarreko lurralde egituraren arazoari aurre egin ahal izateko behingoz, gaur egun guztiz desegokia dena.

Galeuzca 1923an sortu zen, Espainiako Bigarren Errepublikara. Galeuzcaren garairik emankorrena hori izan al zen?

Erantzuna ez da erraza ezta irmoa ere. Galeuzca 1933ko uztailaren 25ean Compostelako Itunean adostu zen mugimendu bat izan zen. Uztai-

→ laren 30ean itun hori zabaldu eta eguneratu egin zuten Bilbon eginiko bilkura batean eta, azkenik, Bartzelonan finkatu zuten Galeuzcari lotutako ituna abuztuaren 4tik 12rako epean.

Une horretan, Errepublikako gobernua ezkerrekoa zen. Galeuzca itxaropen itsasargi bat izan zen Errepublika federal batera iristeko bidean, eta era honetan estaturik gabeko hiru nazio galeuzcarrak nazioarteko oihartzun handiagoa izatea lortu nahi zen, besteak beste, Minoria Nazionalen kongresuetan (kongresu hauek Nazioen Elkarteari lotuta zeuden, gaur egungo ONUren aitzindaria zen elkarteari). Baina itxaropen hori etsipen bilakatu zen 1933ko azaroan eskuindarren gorakada eman zenean, eta ondorengo bi urteetan ezarri zen eskubitar aroak itxaropenezko perspektiba hura zapuztu zuen.

Galiziar, katalan eta euskaldun nazioei ikusgarritasuna emateko sortu zen mugimendu hura zertan da gaur egun?

Galeuzca mugimenduak gorabehera ugari ezagutu ditu bere ibilbidean zehar, baina edozein unetan, egoera egokia ematen den unean, *Ave Fénix*-en pare berpiztu daiteke. Bada esaera zahar bat uste hau indartzera datorrena: batasunak indarra dakar. Azken ahalegina Llotja de Marreko Adierazpena izan zen, 2019an Bartzelonan sinatu zena. Galeusca eraginkor bat suspertzeko egoera ezin hobea da, eta ez da baztergarria. Baina ez nago hiru nazioetako alderdi abertzaleetako lider politikoen burmuinetan. Batzuetan, historialariak profeta haiek bezala sentitzen gara, desertuan alperrik deklamatzeko.

Galiziarra jaiotzez, aspaldi bizi zara Euskal Herrian. Galiziera eta euskara menderatzen dituzu. Nola moldatzen zara katalanarekin? Galiziera menderatzen dut, eskolan gazteleraz alfabetatua



"Historialariak profeta haiek bezala sentitzen gara batzuetan, desertuan alperrik deklamatzeko".

izan nintzen arren eta galizieraz hitz egiteagatik zigortua izan nintzen arren. Euskara menderatzea gustatuko litzaidake baina zoritxarrez ez da horrela, penaz diot. Katalanari dagokionez, liburu asko irakurri ditut eta irakurtzen ditut hizkuntza horretan, batez ere Galeuzcaren inguruko nire ikerketek horretara behartzen nautelako. Espresio eta hitz asko ez daude galizieratik oso urrutit. Biak hizkuntza erromaniakoak dira, azken batean.

Honi lotuta, Espainiako Kongresuan eta Senatuan euskaraz hitz egin daiteke orain. Galeuzca

"GALEUZCA MUGIMENDUAK GORABEHERRA UGARI EZAGUTU DITU BAINA EDOZEIN UNETAN AVE FÉNIX-AREN PARE BERPIZTU DAITEKE"

sortu zuten haien aldarrikepenetako bat hauxe izango zen akaso?

Lorpen oso positiboa da, eta duela urte asko lortuta egon beharko lukeela iruditzen zait. Honek adierazten du espainiar estatua plurikulturala dela, plurilinguistikoa eta plurinazionala. Aurrerapensakongoak eskuratzeko lehen urratsa dela. Nola ez, galeuzcetar zaharrek desiratutako amets bat bete da. Nire garaian esaten bezala, "galtzen den borroka bakarra, abandonatu egiten dena da", edota "ezinezkoa lortzeko borrokatu behar da, posible dena erdietsi ahal izateko".

ESPAINIAKO KONGRESUAN EUSKARAZ HITZ EGIN DAITEKE ORAIN. "GALEUZCATARREK DESIRATUTAKO AMETS BAT BETE DA"

Nafartarren zikloa

'Vasconiatik Iruñera, Pirinioetako Erresuma 711-824. Eneko Haritza' zikloa.

Urriak 30-azaroak 6 18:00-20:00
Erakusketa Sutegin.

Urriak 31 asteartea
19:00 'Irunberri 1990: gure herriaren metafora bat' liburuaren aurkezpena Sutegin. Hizlaria: Pako Aristi.

Azaroak 2 osteguna
19:00 'Krutwig. Bere mendeurrenean berriakurtzen' liburu biografikoaren aurkezpena Sutegin. Hizlaria: Oskar Arantzabal.

Azaroak 4 larunbata
10:00 Jardunaldia Sutegiko auditorioan. Bi hitzaldi:
• *'Banu Qasi Vascones islamizados'*
Hizlaria: Jose Luis Orella Unzué (gazteleraz).
• *'Errozabal/Orreaga 824 ko gudua'*
Hizlaria: Beñi Agirre.

12:00 Mahaingurua Sutegin: Iñaki Idigoras, Iñigo Larramendi, Angel Rekalde. Moderratzailea: Mentxu Zorrita.

Azaroak 6 astelehena
19:00 Xosé Estévezzen 'Galeuzca, La Periferia contra el páramo' liburuaren aurkezpena Sutegi udal liburutegian.

Sarrera: doan.
Antolatzaileak: Nafartarrak eta Udal liburutegia.



Txirikordako eraikitze lanak amaitzeko, obren exekuzio kontratua suntsitzea erabaki du udalbatzak. NOAUA

"Kontratu baten biktimak gara"

Lanen %99,99a eginda, likidatua. Zati txiki bat baino ez da geratzen berez, %1 hain zuzen, Ugartondon kokaturiko Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioko obrak amaitzeko, baina bukatu ezinik dira.

Minduta eta hunkituta hitz egin zuen gai honi buruz Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak urriaren 10eko ezohiko osoko bilkuran, lan hauek amaitzeko Udalak duen ezintasunagatik. Herriari eragiten ari zaion mina nabarmendu zuen eta egoera horretan, "ezin dugu ezer egin" adierazi zuen. Guztia, hitzartua duten obren exekuzio kontratuagatik. "Kontratu baten biktimak gara", azaldu zuen argiki Solaberrietak.

"Arrazoi sendoak"

Udalbatzak aho batez kontratu hori suntsitzea erabaki zuen. Alkatearen esanetan, "15 urteotan gisa honetako neurririk ez du hartu" herri honetako udaletxeak eta hori erabakitzeko "arrazoi sendoak" dituztela ziurtatu zuen. Finean,

Ugartondon kokaturiko belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa eraikitzeke lanez arduratu behar zuen Construcciones Murias S.A. enpresak bere gain hartuak zituen konpromisoak ez dituelako bete, eta ez behin, behin baino gehiagotan, udal gobernu taldeetik aditzera eman zuten.

Duela bi urte, 2021eko irailan esleitu zizkieten Txirikorda eraikitzeke obrak Murias enpresari. Lanak amaitzeko 18 hilabeteko epea finkatu zen esleipen haren oinarrietan eta ia 100.000 euroko bermea. Iazko urte amaieran, lanen %99a likidatua zegoen, Txirikordako obren %1a gauzatzea baino ez zen falta.

Urte hasieran, langileak lanera joateari utzi zioten udal gobernu taldearen esanetan. Udalak obragatik zegokiona

ordaindu arren, diru kopuru hau "ez zen iristen behar zen enpresetara". Ondorioz, langileak ez ziren zegozkien ordainsariak jasotzen ari. Enpresak beste hainbat obretan zituen zorrak tarteko, langileei ordaindu ezinik zebilen, udal gobernu taldearen esanetan. "Oso larritzat" jo zuten egoera hau, enpresa eraikitzailearen ordainketa falta "hainbat enpresen bideragarritasuna eta etorkizuna zalantzan jartze-

KONTRATU HAU SUNTSITU ARTE UDALAK EZINGO DITU TXIRIKORDAKO LANAK AMAITU

raino" heldu zen. Tarte horretan, materialen prezioetan izandako garestitzea tarteko, prezioak berrikusi ziren, 136.000 eurotan garestitu zen obraren kostua.

Lanak amaitu ezinik

Urte hasierarako obrek amaitu behar zuten, baina oraindik ez da halakorik gertatu. Ordu tik hainbat alditan saiatu da Udala enpresarekin komunikatzen. "Ezinezkoa izan da komunikazio iraunkor bat izatea". Zenbait bilera egin ahal izan dituzte, "usurbildarren dirua nora joan den" galdetu izan diete, ez zegoela baimendua erantzuteko, horixe enpresaren partetik jasotako erantzuna. "60.000 euroko kostua duten lanak egitea falta zen", baina gaurkoz ezin obrak amaitu. Azken hilabeteotan zenbait konpromiso hartzea heldu da enpresa eraikitzaileari; uztailearen 24rako obra amaituko zuela, irailaren 11rako gero. Baina emandako hitza ez du bete. Eta jada, lanok amaitzeko konpromiso bat hartzeari ere uko egin diola azaldu zuten hilaren 10eko osoko bilkuran. Horregatik guztiagatik, aho batez onartu zuten kontratu suntsipen hau saio hartan. EAJtik bere laguntza eskaini zuten prozesu honi begira, baita gerora ere, obrak amaitzeko. EHBildutik adierazi zuten, jakitun dira "bide honek zailtasunak ekar ditzakeela". Baina erabaki bat hartu beharrean aurkitu direla adierazi zuen alkateak, aurrera begira, "beste bide batzuk hartzeko" eta behingoz, Txirikordako lanak amaitu ahal izateko. Momentuz, udalbatzak Udalak Muriasekin hitzartua zuen obra kontratua suntsitzeari aho bateko onespina eman ostean, alegazioetarako hamar eguneko epea zabalduko da orain. Tarte horretan, inork erreklamaziorik aurkeztuko ez balu, suntsipen hau behin betiko onartutzat joko da. Kontratu hori suntsitu arte, Udalak ezin go dugu Txirikordako lanak amaitu.

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

943 53 92 66 - 623 462 658

✉ irati.ibargoien@gmail.com

📱 @irati_ibargoien_fisioterapia

🌐 iratibargoien.com

📍 Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertentsioa ·gizentasuna
·elikadura eta kolesterol arazoak

*elikadura ohiturak zure neurria aldatzen
laguntzen dizugu!*

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL



USURBIL
OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

·Dosifikazio sistema pertsonalizatua
·Dermofarmazia
·Produktu homeopatikokoak
·Maisu formulak



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta

ORTOPEDIA BAT
BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

Kima
MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

IRUDITAN



Frank Delgado kubatarrek urriaren 8an Sutegin eskainitako kontzertua. NOAUA!



2. Akerra Egunez Txokoaldeko frontoian egin zuten afaria. NOAUA!



Jokairen jolas mitologikoein primeran pasa zuten urriaren 20an. NOAUA!



Tipi-tapa ibili ziren Buruntzaldeko 15. Ibilbideen Egunean. NOAUA!



Taldeakako jolasekin ekin zioten Aginagako Eskola Egunari. NOAUA!



Ttipikakoein dantza giro bizian agurtu zuten Aginagako Eskola Eguna. NOAUA!



Behoria Garbi Eguneako Oriako jaitsiera. Hondakinak biltzen aritu ziren. NOAUA!



Behoria Garbia Egunean parte hartu zuen taldeetako bat. NOAUA!




Txokolate jana egin zuten urriaren 20an Askatasuna plazan. NOAUA!

Liburuen truke azoka, "Haurren aurrean, helduok heldu" ekimena borobiltzeko

Urriaren 29an amaituko da "Haurren aurrean, helduok heldu" ekimena, helduen artean euskararen erabilera sustatu eta haurrekiko hizkuntza eredugarritasuna bultzatu nahi duena. Testuinguru honetan, Jokai euskal mitologian inspiraturiko jolas

kooperatiboen eta txokolate janaren bueltan arratsalde pasa antolatu zuten urriaren 20an Udarregi ikastolak eta Usurbilgo Udalak. Ostiral honetarako, arratsaldeko 16:30etan hasita euskarazko liburuen truke azoka iragarri dute Agerialden.



Palestina aske nahi dutela aldarrikatu zuten. NOAUA!

Palestinarren aurkako genozidioa salatu eta herri erasotzarekin bat egin zuten

Haien aurkako genozidioa salatu, elkartasuna adierazi eta aske nahi dutela aldarrikatu zuten. Palestinarekin bat egin zuten Usurbilgo Sortuk eta Ernaik urriaren 20an Mikel Laboa plazan deitu zuten elkarretaratzean. Palestinar banderakeskuartearen. alarma

hotsen artean, "Elkarrizketa politikoa da bidea. Gerrarik ez! Palestina askatu!" aldarripean egin zuten mobilizazioa. Biharamunean "Gernika-Palestina Ekimen Herritarrak" deituta Donostian egindako manifestazio jendetsuarekin bat egin zuten.

errigora
10 urte bete-bete

errigora.eus



Bat egiteko garaia da

50€



urriak 20 azaroak 9

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

noaUA



URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI!

pirritx, Porrotx
eta Marimotots



AZAROAK 5, IGANDEA
11:30 OIARDO KIROLDEGIAN

Sarrerak: 8€ usurbilkultura.eus plataforman

noava



Usurbilgo Uetala

www.katxiporreta.eus





Duela bi aste Etxealdiako bizilagunekin bildu zen Usurbilgo Udala.

San Esteban kalea oinezkoena, Etxealdiako bizilagunek autoz igarotzeko aukerarekin

Aurrerantzean Eliza paretik tren geltokira jaisteko bidea oinezkoena izango da. Etxealdiako bizilagunek soilik igaro ahalko dute kotxez bertatik. Karga-deskargarako, bertan aparkatzeko aukera izango da.

Proposamen hau egin zien udal gobernu taldeak bertako bizilagunei iragan urriaren 9an egin zuten bilkuran. Bertara joan zirenak ados agertu ziren.

Momentuz, kalea itxita egon da ibilgailuentzat, eta seinalizazioa jarri dute. “Kalea irekitakoan, zer erabilera ematen zaion behatuko du udalak, eta neurritz kanpoko erabilera egingo balitz, kontrolerako sistema bat ezarriko luke”, ohartarazi du Udalak. Halere, “isunak jartzen hasi baino, nahiago dugu pedagogia egin: guretzat pertsonen segurtasuna da garrantzitsuena. Haurren eta pertsona helduen

autonomia sustatu nahi dugu: horretarako gure kaleek seguruak izan behar dute, eta kaleak seguruak izateko beharrezkoa da kotxeak bertatik kentzea”.

Aldaketa honen harira, bi eskaera plazaratu ditu Udalak. “Batetik, ahal dela, auzora sartu eta irteteko Bizkarre aldeko bide nagusia erabiltzeko, eta, bestetik, bertatik pasatzen diren bizikleta eta patineteei zuzenduta, mantsago pasatu daitezela, oinezkoen segurtasuna bermatzeko”. Udal gobernu taldearen esanetan, “Usurbilen ez dago halako kalerik, eta hau erronka bat da denontzat:

modu egokian jokatu behar dugu guztiok”.

Zalantzak

San Esteban kalearekin zer egin, zalantzak eragin dituen gaia izan dela berri eman du Udalak. “Hasiera batean, ez zen planteatu ibilgailuen joan-etorri orokorra debekatzeko asmorik, eta gauez bertan aparkatu ahal izango zela adierazi zen. Zorua berrituta,

"MODU EGOKIAN JOKATU BEHARKO DUGU GUZTIOK"

UDAL GOBERNU TALDEA

trafikorik gabeko tarte bat utzi behar zen zementua erabat finkatzeko, eta, horren ostean, kalearen izaeraren inguruko zalantzak sortu ziren Udalean”. Bide batez, Udalak “barkamena eskatu diete bizilagunei” aipaturiko zalantzek eragin dutelako kalea lehenago ez irekitzea. Horregatik, deitu zuten urriaren 9ko bilera, azken erabakia auzoko bizilagunekin batera hartzeko.

Aukeretako bat ibilgailuentzako erabat ixtea zen eta horretarako oztopoak jartzea. Segurtasunagatik ordea, planteamendu hau baztertzea erabaki zuten. “Larrialdiren bat egongo balitz, halako oztopo batek egoeraren larritasuna areagotuko luke, eta ez genuke halakorik nahi”, adierazi dute Udaletik.

Irisgarritasuna hobetzera

Kale honetako aldaketek haratago, Etxealdiari lotutako egitasmo gehiago ere baditu eskuartean Udalak. Gogoan izan, “Auzoaren irisgarritasuna hobetzeko eta HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzeko hainbat bilera egin zituzten aurreko legegaldian, eta orduan adostutakoak gauzatzen hastekoa dela azaldu dute. Iraileko osoko bilkuran egindako kreditu aldaketarekin (300.000 eurokoa, 2023ko aurrekontuetan aurrez gordetako 75.000 euroei gehitzeko), auzoaren beheko zatiko aparkalekuen ingurua berrantolatuko du udalak: obren exekuzio proiektua idazten ari da, lanak hurrengo urtean gauzatzen hasteko helburuarekin. Proiektu hori ere auzotarrekin kontratatuko dutela nabarmendu dute”.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, raziak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrene 2, 943 36 55 81



Euskararen aurkako epaietako bat salatzeako alkate eta hautetsiek uztailean frontoian eginiko agerraldi jendetsua. NOAUA!

Oldarraldia salatzeako deia egin dute

Euskararen aurkako etenik gabeko erasoen aurrean aski dela adierazi eta salatzeako, erakunde adierazpena bozkatuko dute osteguneko osoko bilkuran. Azaroaren 4an Bilboko manifestaziora joateko autobus zerbitzua antolatu da baita Usurbildik ere.

Euskararen aurkako enegarren erasoak. 48 orduko tartean udal jardunean euskararen erabilera bermatzea ahalbidetzen duen araudiaren aurkako bi epai kaleratu zituen iragan astean EAeko Auzitegi Nagusiak. Uztailean Espainiako Konstituzio Auzitegiak balio gabeturikoaz gain, artikulua gehiago behin-behinean bertan behera utzi zituen, PP eta Vox alderdiek aurkezturiko alegazioen harira. Espainiako Auzitegi Gorenean helegiteak aurkezteko 30 eguneko epea zabaldu dute.

Epai hauekin guztiekin baliogabetu diren artikuluen artean dira, udal euskaraz funtzionatzeko neurriak hartzea ahalbidetzen duena, "berezi, euskararen arnasguneetan"; hizkuntz irizpideak finkatzea ahalbitzen diotena

udalei; euskararen erabilera arautu eta horri lotutako plangintzak bideratzea baimentzen duena; udal dokumentazioa euskaraz idatzi ahal izatea ahalbidetzen duena; edota baita "dibulgazio- edo informazio-komunikazioetan zer hizkuntza erabili erabakitze" aukera ematen diena udalei.

Adierazpenak udaletan eta manifestazioa Bilbon

EAeko Auzitegi Nagusiak plazaraturiko euskararen aurkako epaien harira, Usurbil kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatetik (UEMA) salatu dutenez, "oldarraldia ez du etenik. Gure eskubideen defentsak ere ez. Hizkuntzak ez dira boligrafoak bezala galtzen. Jazarri eta desagerrazi egiten dituzte. Ez dugu onartuko atzera egiterik. Euskaraz

jarraituko dugu. Azaroaren 4an denok Bilbora!".

Horrekin batera, adierazpen instituzionala plazaratu du "udaletan ahalik eta lasterren onartzeko". Sei puntuko testuan, kezkarritzat eta larritzat jotzen ditu epai hauek, bereziki udalerrri euskaldunei eragiten diela ohartaraztearekin batera. Eskaera argi bat egiten du, gainera: "urra dezagun bidea euskararen indarberitze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko".

Azkenik, azaroaren 4an Euskalgintzaren Kontseiluak Bil-

AZAROAREN 4KO MANIFESTAZIORA JOATERA DEITU DUTE

bon deitu duen manifestazioarekin bat egin eta herritarrei mobilizazio horretan parte hartzeko deia egin die. Aipatu adierazpena, ostegun honetako, urriaren 26ko osoko bilkuran aztertu eta bozkatuko dute Usurbilgo udal ordezkariak.

Irmoki erantzuteko deia

Aipatu moduan, Euskalgintzaren Kontseiluak manifestazioa deitu du azaroaren 4an arratsaldeko 17:00etan Bilboko Euskaldunatik abiatuko dena, "Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat" aldarripean. Jada, hainbat atxikimendu bildu ditu deialdiak, tartean sindikatu nagusia. Geroz eta kezkarritzat eta larriagotzat jotzen dute "azkenaldian euskararen biziberritzea helburu duen neurrien kontra, auzitegietatik jasotako sententzia sorta". Izan ere, "gero eta argiago geratzen ari baita kasuan kasuko ebazpenetik haragoko joera bat dela, oldarraldi judizial bat, funtsean".

Epaitegiarekin iragan astean euskararen aurka kaleraturiko lehen epaia "larritasun handikotzat" jo zuen Kontseiluak. Salatu zuten, "azken sententzia honek ukatu egiten ditu euskararen normalizazioaren aldeko politika publikoak behar direnik edo egingarri direnik". Bigarrenaren harira adierazi zuten, "euskararen normalizazioaren aurkako sententzia berri bat eman du EAeko Auzitegi Nagusiak, bigarrena aste honetan. Azaroaren 4an batasunetik erantzun irmoa ematera deitzen ditugu herritar guztiak. Aski da!".

Autobus zerbitzua

Azaroaren 4ko Bilboko manifestaziora joateko autobus zerbitzua antolatu du Udarregi ikastolak NOAUA! Kultur Elkartearekin lankidetzan. Garraio zerbitzurako izena urriaren 26a baino lehen eman beharko da.



Hastapenetan bezala, 50 eurotako saski bakarria egongo da eskuragarri. Barruan, "23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzionalak nahasian".

10. urtemugako kanpaina du Errigorak

"10 urte bete-bete". Hala dio Errigorak abiarazi duen kanpainaren harira. Hamarkada honetan egin bezala, oraingoan ere Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktuen milaka saski helaraziko dituzte Euskal Herriko etxeetara.

Auzolanak bideratuko du euskalgintzan ere eragiten duen ekimen hau. "Erromatarrek Ager vasconum deitu zuten lurraldea -Nafarroa hegoalde eta erdialdea- du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskarako eta euskaraz".

Handitzen doan sare bati esker bideratzen da egitasmoa. "Gero eta zabalagoa den komunitate batek ematen dio gorputza ekimenari; ilusioz eta anbizioz ari garen herritar, nekazari, ekoizle, euskaltzale eta kontsumitzaileez osatutako sare anitz batek. Gure txikitasunetik herrilan handi bat gauzatu nahi dugu, Nafarroak Euskal Herria behar duelako eta

Euskal Herriak Nafarroa behar duelako".

Azaroaren 9ra arte

Eskaerak azaroaren 9ra arte bideratu ahalko dira. Abiapuntura itzultzea erabaki dute oraingoan. "Hastapenetan bezala 50 eurotako saski bakarria" egongo da eskuragarri. Barruan, "23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzionalak nahasian". Kaxak NOAA! Kultur Elkartearen egoitzan edo errigora.eus bidez eskatu ahalko dituzue azaroaren 9ra arte.

"%25a euskalgintzara bideratzen da"

Erositako kaxa bakoitzetik, "saski bakoitzaren %25 euskalgintzara bideratzen da", ohartarazi dute beste behin Errigoratik. "Ekarpen hori

ezinbestekoa da zonaldeko ikastolentzat eta AEK-ren euskaltegientzat, baita sare publikoan D eredia sustatzeko dinamikentzat ere".

1.800.000 euroko ekarpena euskalgintzari

Azken hamarkadan, "ikastolen eta AEKren biziraupena bermatzeko eta hezkuntza-sare

"KAXAK NOAA!-REN EGOITZAN EDO ERRIGORA.EUS WEBGUNEAREN BIDEZ ESKATU AHALKO DIRA AZAROAREN 9RA ARTE"

publikoan D ereduari atek zabaltzeko 1.800.000 euroekin bete dugu zonaldeko euskalgintzaren diru-kutxa menegela". Horrez gain, "Agerraldia mugimenduaren iturburu eta sustengu ere bada; zonaldean euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko eta bere aldeko jarrerak indartzeko lan egiteko baliabideak eskaintzen dizkio".

Hamargarren urtemuga

Honenbestez, deialdi bikoitza egin dute. "Dei berezia egin nahi dizugu urteurren honetarako espreski diseinatutako "10 urte bete-bete" kutxa eskatu eta beste milaka euskal herritarrekin batera gure argazki erraldoiean zu ere agertzeko. Kanpaina hau baita sentsibilitate eta komunitateko kide guztiak bereziki batzen gaituena, ekoizleengandik hasi eta euskalgintzako bidelagunenganaino". Ekimen honek izan duen bilakaerari lotutako datu bat; "10 urtetan ekoizleen familia nola ugaldtu den bizi izan dugu, ugaldtu eta heldu, 5 ekoizlerekin hasi eta 23 ekoizletako taldea osatzeaz gain, taldean konpromiso partekatua hartu (eta bete) eta Errigora Balioak baratzertzeko pausoak eman ditugu".



GuraSOsek oroitarazi zuenez, "funtzionarioak ustez ezikusiarena egin zuen ingurumen arau-hauste larrien aurrean". Argazkia, arxibokoa.

GuraSOsek helegitea aurkeztuko du

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen baimenen arduradunaren aurka fiskaltzak agindutako ikerketa artxibatzea erabaki du epaileak. GuraSOsek erabaki horri apelazio-errekurtsua aurkeztuko dio.

Gogoan izango duzue, urriaren 6an GuraSOsek berri eman zuenez "prebarikazioagatik" ikertu gisa deklaratu zuen Eusko Jaurlaritzako langile Hipolito Bilbao Intxaurragak, ingurumen alorreko fiskaltzak Zubietako erraustegiaren funtzionamenduari lotuta aurrez aurkezturiko salaketaren harira. Aipatu elkartetik azaldu zutenek, Bilbao Intxaurragak "Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saileko sailburuordetzan dihardu lanean, kutsaduraren prebentzio eta kontrol zerbitzu bateratuaren arduraduna da". Epailearen eta herri akusazio lanean diharduen GuraSOsen galderei erantzun zien.

GuraSOsek oroitarazi zuenez, "funtzionarioak ustez ezikusiarena egin zuen ingurumen arau-hauste larrien aurrean". GuraSOsen esanetan, "arau-hauste horien atzean egon daitezke erraustegiak

inguruko lurzoru eta lurrazpiko uretan eragindako kutsadura".

Aipatu funtzionario honen aurkako ikerketa artxibatzea erabaki du epaileak, GuraSOsek berri eman duenez, "eskutatuko ikerketa abiarazi gabe eta soilik ikertua entzunda iragan urriaren 6an". Gaineratu duenez, "bere erabakia argudiatzeko ikertuaren argudioak errepikatzen baina ez da mugatu epailea".

Testuinguru honetan, GuraSOsek iragarri duenez, "hurrengo egunetan apelazio-errekurtsua aurkeztuko du. Gipuzkoako Lurralde Auzitegia izango da ikerketa honen etorkizunaz azken hitza izango duena".

Elkarte honetatik gogorarazi dutenez, "Fiskaltzak 2022ko urriaren 17an salaketa idatzi bat helarazi zion epaitegiari. Bertan aipatu funtzionarioak

ustez behatzeari eta bere txostenetan islatzeari utzi zion bazegoela "gasen arazketa sistemako efluente toxikodun ezkutuko purga arriskutsua, proiektuan ez zegoena aurreikusia eta beraz baimendu gabekoa zena". Horrez gain, "berak zuzendutako ikuskapenetan, baimendutako emisioen muga gainditzen den kasuetarako hondakinen elikaduraren gelditze sistema automatiko falta" zegoela ere ohartarazi zuen. Idatzi horretan, GuraSOsek oroitarazi duenez, "ingurumen fiskaltzak

"JOKOAN DAGO GIZARTEAK FUNTZIONARIOEN JARDUERAK MONITORIZATZEKO DUEN ESKUBIDEA"

epaitegiari eskatu zion hainbat ikerketa egiteko".

GuraSOsen balorazioa

Epailearen erabakiaren aurrean, GuraSOsek dioenez, "badago "ebazpen goiztiarra" izeneko kontzeptu juridiko bat, epaileek beharrezko ikerketa-eginbideak edo behar bestekoak egin gabe artxiboak ebazten dituzten kasuetan aplikatzen dena. Eza-gutu dugun artxiboa termino horretatik haratago doa. Epaitegiak ez du ikerketa-eginbide bakar bat ere erabaki, Fiskaltzak beren-beregi horietako batera bat eskatu zionean".

GuraSOsek gaineratu duenez, "arduradun politikoak "lasaitasun" mezua errepikatzen ari dira azken egunotan, duela egun gutxi jakin baitzen Zubietako erraustegiaren funtzionamenduarekin lotutako kausa batean Ingurumen diputatu Asensio jauna "ikertuko" zutela. Ordezkarri instituzionalak aurreratu zuten salaketa ezerezean geratuko dela. Gure ustez, horrelako adierazpenek justizia baldintzatu nahi dute, eta Zuzenbide Estatu batean gaitzesgarriak dira".

Horregatik, dioenez, "ezinezkoa da aurreko testuingurua kontuan ez hartzea artxibo honen moduko ebazpenak baloratzerakoan. GuraSOsek ikerketa "gezurrezko itxiera" baten arriskuaz ohartarazi zuen urriaren 6an igorri zuen komunikatuan. Ikertutako Hipolito Bilbao Eusko Jaurlaritzako funtzionarioaren deklarazioaren ondoren, gogorarazi zuen "urtebete igaro dela eginbideak hasi zirenetik inolako eginbiderik egin gabe". GuraSOsek ondorioztatu duenez, "kasua ez ixteaz gain, dimentsio handiagoa ere hartzen du, beraz gaitzerdi".

Elkarte honen esanetan, "jokoan dago gizarteak, kasu honetan Ingurumen Fiskaltzak ordezkatuta, osasun publikoa eta ingurumena babesteko ardura duten funtzionarioen jarduerak monitorizatze duen eskubidea".



"Nire gain" bonoak eskuragarri dituzue NOAUA!n eta Aitzaga tabernan.

GuraSOSen bonoak eskuragarri

Osasuna eta ingurumena babestu eta etorkizun iraunkorra bermatzeko abiarazi du GuraSOSek "Neure gain" ekimena.

"Balizko bi delituengatik" Donostiako Auzitegia ikertzen ari da Jose Ignacio Asensio

jasangarritasun arloko foru diputatua eta GHKren lehendakaria. GuraSOSek bertan

"herri akusazio gisa aurkezteko tramiteak egin ditu eta orain epaitegiak fidantza bat eskatuko dio akusazio hori aurrera eraman ahal izateko". Elkartek honek jakinarazi duenez, ordea, "Jose Ignacio Asensiok GuraSOSen kontuak enbargatuta utzi ditu beste auzi batzuetako kostak ordaindu ez dituelako". Horregatik, "nire gain" bonoak eskuragarri jarri ditu NOAUA! K.E.-ren egoitzan eta Aitzaga tabernan. Ekarpem ekonomikoa egiteko bono horietako bat datu pertsonalekin bete, tartean helbide elektronikoa idatzi eta "bertara helduko zaizu gero mezu bat" argituz zeinen kontuan egin beharko duzun diru sarrera, hau da, eskaini duzun laguntza ekonomikoaren kopurua eta jasoko duzu diru hori zertan gastatu den egiaztagiria". Diru ekarpenak norbanako gisa edo taldean egin ahalko dira.

'Kultur Asteburua' Txokoalden

Auzoko Erroizpe elkarteak Kultur Asteburua antolatu du azaroaren 3rako eta 4rako Txokoalden.

Azaroak 3, ostirala

- 21:00 Bertso-afaria Erroizpe elkartean, Maider Arregi eta Eli Pagola bertsolariekin.
- Txartelak 20 eurotan eskuratu daitezke Txirrista, Benta, Antxeta eta Artzabal tabernetan.

Azaroak 4, larunbata

- 16:00 Mus txapelketa eta toka desafiyaak, haur, gazte eta helduen artean (izen-emaitea 15:30ean hasita).
- Jarraian, Ostolaza eta Puja-na trikitilariak.
- Pintxoak eta txotxa izango da.

Antolatzaileak:

Erroizpe elkarteak.

Zumarteko ikastaroetan izena emateko garaia da

Gitarra +55 urte

- Irakaslea: Ixak Arruti.
- Maiztasuna: astean ordu bat.
- Eguna: asteartea, 10:00etan.
- Prezioa: matrikula 100 euro + 22 euro hilean.

Armonika

- Irakaslea: Asier Nieto Kixki.
- Maiztasuna: astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostuta.
- Prezioa: matrikula 140 euro + 30 euro hilean.

Ukelelea

- Irakaslea: Nuria Culla.
- Maiztasuna: astean ordu bat.
- Eguna: astelehena, 19:30ean.



Zumarte Musika Eskolak hainbat ikastaro iragarri ditu. Izen-ematea urriaren 29an amaituko da; online egin behar da, zumarte.eus webgunean.

- Prezioa: matrikula 100 euro + 22 euro hilean.

Musika 0-3 urte

- Irakaslea: Aritz Larrea.

- Maiztasuna: hamabostean behin, ordu bat.
- Eguna: ostiral arratsaldea.
- Prezioa: matrikula 50 euro + 11 euro hilean.

Alboka

- Irakaslea: Teresa Jareño.
- Maiztasuna: astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostuta.
- Prezioa: matrikula 140 euro + 30 euro hilean.

Dultzaina

- Irakaslea: Mikel Ortiz.
- Maiztasuna: astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostuta.
- Prezioa: matrikula 140 euro + 30 euro hilean.

Izen-ematea:

Urriaren 23tik 29ra, zumarte.eus helbidean. Ikastaroak azaroaren 6an hasi eta ekainaren 21ean amaituko dira.

26. Lasarte-Oria Bai! kros herrikoia Zubietatik igaroko da

Lasterkariak, patinatzaileak eta ipar martxalariak parte hartu ahalko dute igande honetako proban

Urtero moduan, Zubietako Herri Batzarrak bat egin du Lasarte-Oriako Ostadar S.K.T.-k antolatuta duen herri krosarekin. Igande honetan, urriaren 29an izango da 26. Lasarte-Oria Bai! ekimena goizeko 10:30ean hasita eta Zubietatik zeharkatu-ko du hitzorduak. Ohi bezala, hipodromoko zubitik errebotte plaza aldera etorriko dira partaideak eta handik Aliriko

zubirantz joko dute gero. Txikiertit barrena, Michelin paretik Okendo plazara joko dute amaitzeko. Bertan kokatuko dute, hamar kilometroko ibilbidearen helmuga. Gelto-ki kaletik abiatuko da ekimena. Lasterkariak, patinatzaileak eta ipar martxalariak parte hartu ahalko dute. Probarako izena ostadarskt.eus atarian eman ahalko da.



Probarako izen-ematea, ostadarskt.eus web orrialdean. ARGAZKIA: NOAUA!

Pilota partidak

Urriaren 26, osteguna, arratsaldeko 20:30ean:

- Kadeteak eskuz binaka (Gipuzkoa 2. Maila)
- Pagazpe
- Gazteleku

Urriaren 27, ostirala, arratsaldeko 17:45ean:

Errendimentuko infantilak eskuz banaka

- Infantil 3. Mailan:
- Pagazpe (Oliva)
- Gazteleku

- Infantil 2. mailan:
- Pagazpe (Alejo M.)
- Oiarpe

- Pagazpe (Alejo E.)
- Kuku

Enrique Abril errebote txapelketako finala

Azaroak 5 igandea

- 10:30ean, Villabonan:
- Luzean
- Kapito Harri



Eskubaloia

Urriak 28, larunbata Oiarde kiroldegian

- 10:15 Infantil mutilak:
- Usurbil K.E. B
- Amenabar B ZKE

- 11:30 Infantil neskek:
- Usurbil K.E. A
- Tecnifuelle Elgoibar

- 17:00 Senior mutilak:
- Saizar Usurbil K.E.
- Escolapios

- 19:00 Senior neskek:
- Urbil Usurbil K.E.
- Urola E.K.



Futbola Haranen

Urriak 28, larunbata Harane futbol zelaian

- 9:00 Eskola Kirola.
- 10:30 Kadete neskek:
- Usurbil FT B-Hondarribia FE
- 12:15 Kadete mutilak:
- Usurbil FT B-Amara Berri B
- 15:30 Preferente mutilak:
- Usurbil FT-Mundarro FKE
- 17:45 Jubenilak B:
- Usurbil FT B-Igeltegi CF

Haranetik kanpo

- 10:45 Kadete neskek Añorgan:
- Añorga KKE B-Usurbil FT
- 13:40 Kadete mutilak Donostiako Berion:

- Luberri KE B-Usurbil FT
- 15:30 Erregionalak Idiazabal:
- Tolosa CF B-Usurbil FT B

Urriak 29, igandea Harane futbol zelaian

- 10:00-13:00 Futbol Eskola
- 15:30 Infantil mutilak: Usurbil FT B-Texas CF
- 17:30 Preferente neskek: Usurbil FT-Dunboa Eguzki B

Haranetik kanpo

- 9:00 Infantil mutilak Donostiako Matigoxotegin:
- Kostkas Mariaren Bihotza C
- Usurbil FT

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Bi logelako etxebizitza, garajeko plaza batekin. Galtzaragaina kalea, 3. Igoailuarekin. 656 710 566.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabe. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an bertitua. 670 410 273.

SALGAI

MOTORRA

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Harremanetarako: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiazen zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsalde. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabe. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171
Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. Harremanetarako: 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Orduetegi malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest: 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia daukat. 602 082 583.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-inkarria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 26	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 27	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 28	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 29	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 30	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astearte, 31	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 01	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 02	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 03	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 04	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 05	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK



Joxe Pagola Alkorta
Berriki hil zen, 67 urterekin.



Maria Zabala Aristi
Urriaren 19an hil zen, 90 urterekin.



Begoña Iribar Azcue
Urriaren 23an hil zen, 78 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 27

USURBIL "Haurren aurrean, helduak heldu" jardunaldiak

Euskarazko liburuen truke azoka.
16:30ean Udarregi ikastolaren Agerialde eraikinean.

USURBIL Herri-aurkezpena: "lau-herri erronka, lau misio"

Misioen baitako udal-gobernantza eraikitze proiektua aurkeztuko du Usurbilgo Udalak.

18:00etan Mikel Laboa plazan.

USURBIL Sarearen mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko mobilizazioa.

20:00etan Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 28

USURBIL Booktegi jaialdia

Informazio gehiago: booktegi.eus
Egun osoko jaialdia.

USURBIL Kantu-jira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolaturiko kantu-jira.

12:00etan Mikel Laboa plazan.

IGANDEA 29

USURBIL Ordu aldaketa

Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus.
12:00etan, Sutegin.



Poesia irakurraldia Sutegin egingo da, eguerdiko 11:00etan.

Booktegiren jaialdia larunbatean ospatuko da Sutegin eta Zumarten

Euskarazko literatura guztion esku jartzen diharduen Booktegi egitasmoaren jaialdia ospatuko da larunbatean.

Booktegi jaialdia Urriak 28, larunbata**Zumarte Musika Eskolan:**

- 10:00 "Elkarri irakurriz solasaldia" -Energia- Nerea Ibarzabal, Eneko Bidegain, Arrate Egaña.
- 11:00 "Poesia irakurraldia" -NOAUA! Kultur Elkarte, Sutegi udal liburutegia.
- 12:00 "Elkarri irakurriz solasaldia" -Zaintza-Ugaitz Agirre, Miren Gorrotxategi, Maitane Perez.

Moderatzailea: Maialen Aki-zu.

Sutegin:

- 17:00 "20netoak" -Maite Larburu, Harkaitz Cano, Beñat Barandiaran. Sarrera: 5 euro, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
- 18:00 "Ipuinaldia" -Udarregi ikastola.
- 19:00 "Manipulazio Estrategiak" -Petti. Juantxo Zeberio. Sarrera 5 eurotan salgai, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
- Argazki erakusketa.

Informazio gehiago:
booktegi.eus atarian.

Larunbatean, kantu-jira

Ohi bezala eguerdiko 12:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka.

Azaroaren 1ean, Artisau Azoka

Eskuz eginiko sortze lanen topagunea ate joka dugu. Aitzaga Elkarteak 27. Artisau Azoka antolatu du azaroaren lehenerako.

Nekazaritza tresneriaren IAT azterketak

Nekazaritza tresneriaren IAT azterketak egiteko aukera izango da, azaroaren 7an, Alkartasuna kooperatibaren kanpoaldean. Azterketa pasatzeko derrigorrezkoa da hitzordua aldeztu aurretik hartzea, Irungo IAT gunera deituta: 943 62 63 00. Eskudirutan ordaindu beharko da.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK
606 37 21 05 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
600 024 825



*Santu guztien egunean,
aukera zabala!*



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



Usurbilgo Udala

Usurbilbizi

Lau misio, herri bat

Udalak **lau herri-erronka** identifikatu eta misio bilakatu ditu. Misioen baitako udal-gobernantza eraikitzen goaz!

Horretarako, ezinbestekoa da zure parte-hartzea.



Herri aurkezpena: Urriak 27, 18:00etan
Mikel Laboa plazan (☂ Zumarten)